

NATALIA MONGE DANTZARIA ETA ORGANIK TALDEKO KIDEA

«Hemengo jendea ez dago ohituta dantza ikustera»

Hirugarrenez jarraian Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Koreografo Gazteen Plataforman parte hartzea lortu du Natalia Mongek, eta pozez txoratzen dabil. Hala ere, oinak lurrari ondo itsatsita dituela-eta ez du lana ahazten. 'Tellagorri II' da egin duen azken obra.

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Heziketa fisikoan lizentziaduna, gimnasia erritmikoko entrena-tzaile eta epaile, etorkizun opa-roko dantzaria... Geldiezina da Natalia Monge (Getxo, 1972). Protagonizatu duen azken abenturak Organik du izena. Bertan aspalditik berarekin dabilen Matxalen Bilbao, Natxo Montero eta Jon Urraza bildu ditu, eta dagoeneko hasi dira lanean. Hain zuzen, bihar taldeak *Tellagorri II* lana aurkeztuko du Algortako Tellagorri plazan.

■ Nondik sortu zen *Tellagorri II*?

Orain dela urtebete Amsterdamen egon nintzen dantza garai-kidea, konposaketa-eta lantzen, eta orduan kale ikuskizun bat egitea bururatu zitzaidan. Algortako jai batzordearekin hitz egin nuen, ideia gustatu zitzaion eta Udalak emandako diru laguntzarekin aurrera atera genuen. Baina nola lehenagotik *Tellagorri* izeneko lan bat egin nuen —iaz aurkeztu zen hura Tellagorri plazan baita—, honako hau *Tellagorri II* deitzea pentsatu genuen.

■ Zer islatu nahi izan duzue aipatu koreografian?

Ezin zaio koreografia deitu, gehiago da umorezko lan bat. Hain zuzen, *Tellagorri II*-n umorea eta zuzeneko musika nahastu dira. Azken hori oso garrantzitsua da. Ernesto Maestrok eta Garik konposatu dute; lehenengoak musika elektroakustikoa egin du, eta Garirekin batera perkusioa jotzen du. Edukiari dagokionez, lana berez istorio txiki bat da, baina ez da lineala. Soka baten gainean hiru dantzari gaude, hirurak begiak zapi batek estalita. Horrekin adierazi nahi dugu beste leku batetik gatzela, eta ez dugula ikusten, ez fisikoki, baizik eta oraindik ez dugula kokalekua bilatu. Orduan kartoien azpitik punk bat agertuko da. Ikusi gaitu, eta gugregana dator jolastera. Bera, punka, kartoiz inguraturiko mundu batean dago, gu beste batean, baina hasi da gerturatzeko, eta azkenean denok dantzatzeko amaituko dugu.



EGUNKARIA
Natalia Mongek, Natxo Monterok eta Jon Urrazak *Tellagorri II* lanean parte hartu dute.

■ Gimnasia erritmikoa, dantza, heziketa fisikoa. Zer dute hirurek komunean?

Hirurek gorputza dute ardatz, eta betidanik oso interesaturik egon naiz gai horrekin. Dantza-ren bitartez, adibidez, mugimenduaren eta gorputzaren arteko harremana lan daiteke. Niri, behintzat, neure gorputza hobeto ezagutzen lagundu dit eta imajina ezin nitzakeen ahalmenak agerian utzi dizkit.

■ Beraz, hiruretatik dantza-rekin geratuko zinateke.

Dudarik gabe. Noizbehinka institutuetatik deitzen didate ordezkapenak egiteko, eta nola edo hala beti saiatzen naiz galetan kirolaz aparte dantza kontuak sartzen. Jendea gehiago dantzatzera animatu nahi dut, oso gutxi egiten baita.

■ Amsterdamen egona zara.

Bai, hango School for New Dance Development-en ikasi nuen. Oso esperientzia ona izan zen, zeren dantza garaikidearen kontzeptuak irakasteaz gain gorputzean eta mugimenduan sakontzen laguntzen ziguten. Gainera, lan moduan koreografiak aurkeztu behar genituen, eta horrekin asko ikasten duzu.

Gerora han ezagutu nuen dantzari batekin, Helena Golabekin zenbait lan egin ditut.

■ Amsterdamen hamaika bide zabalik edukita nolatan erabaki zenuen basamortu honetara itzultzea?

Batez ere erabaki pertsonala izan zen. Dena den, ez pentsa Amsterdamgo egoera hain ona denik. Talde ugari daude han, eta zaila da bidea egitea, aukerak lortzea. Egia da hemen ez dagoela apenas ezer, eta agian

horregatik, dena egiteko dagoelako erabaki nuen itzultzea. Zeren jendea egon badago —Matxalen Bilbaok 20 urte daramatza honetan—, baita lan egiteko gogoak ere. Baina ez dago behar beste baliabide, dantza eskola gutxi daude. Europako beste herrialde batzuekin konparatuta kultura maila apalagoa da. Jendea ez dago dantza ikustera ohituta. Hori bai, Nacho Duato etorriko da Arriagara, eta mundu guztia joango da hara.

■ Egoera horretan dantzatik bizitzea zaila izango da.

Ezinezkoa. Beste gauza batzuetan inplikaturik egon behar duzu, baina dantzarekin bakarrik aurrera ateratzea pentsaezina da. Horregatik da hain zaila konpainiak eratzea, zeren zuretzat adina irabazten ez baduzu, nola besteei ordaindu?

■ Erakundeen inplikazioa handiagoak izan beharko luke, ezta?

Diru laguntzak egon badaude, baina beste arlo batzuetan daudenekin konparatuta oso txikiak dira. Badira hori ere ez duten herriak, bai, baina ohartu behar dute dantza bultzatzeko hori baino gehiago behar dela.

LANA

“«Tellagorri II umorezko lan bat da; umorea eta zuzeneko musika nahasten ditu»

DANTZA

“«Neure gorputza hobeto ezagutzen lagundu dit, imajina ezineko ahalmenak agerian uzten»

euskararen
donostia
patronatuaDonostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**zinea**

- **Kiriku eta sorgina**
Abuztuaren 2an,
22.30etan
Kursaaleko terrazan

ipuinaren orduaUrgulleko Damen
Baterian

- **Sorgin musu gorria**
Uztailaren 29an,
18.00etan

Itsas ipuinak
Abuztuaren 5ean,
18.00etan**ordu girotua**Urgulleko Damen
Baterian

- **Eskulanak: maskara eta kareta**
Abuztuaren 1ean,
18.00etan

- **Pirata jokoak: Txiki uhartea, piraten borroka**
Abuztuaren 8an,
18.00etan

natur txokoaUrgulleko
Gobernadorearen
Baterian

- **Flora eta fauna ezagutzeko bisita gidatuak**
Uztailaren 30ean

- **Sendabelarrak eta infusioak**
Uztailaren 31n

bertsolaritza

- **Bertsotaz**
Txotxongilo emanaldia
Uztailaren 30ean,
11.00etan
Loiola auzoan

- **Gai librean**
Peñagarikano,
Soroazabal eta
Munduate
Uztailaren 31n,
13.00etan
Loiolako kultur etxean

- **Bertso bazkaria**
Uztailaren 31n,
14.00etan
Loiolatarra elkartearen